



Urteko
MEMORIA
2019



Edukiak

1. **Zuzendari Nagusiaren** mezua
2. 2019, **errekor urtea**
3. **Ospakizun** eta **mugarri garrantzitsuen** urtea
4. **Aitzindariak** teknologian
5. Irizar Taldeko **Iraunkortasuna**

Zuzendari Nagusiaren mezua

Martxoan, Pandemia Globala izendatu zutenean, dimentsio ezezaguneko osasun krisi handi bat baieztatu zen, eta horrek aurrekaririk gabeko krisi ekonomikoa ekarri zuen. Hilabete hauek gure bezeroengandik hurbil eman ditugu, eta taldeko pertsonak beren jarduerak modu seguruan jarraitu ahal izatea eta familiaren kudeaketa zailarekin kontziliatu ahal izatea bermatu dugu. Halaber, gizarte laguntzak eman ditugu, gure printzipioen eta gure misioaren arabera. Oso harro nago Taldea osatzen dugun pertsona guztien jokabideaz eta une gogor hauei aurre egiteko erakutsi dugun batasun eta elkartasun jarreraz.

2019ko memoria honek, ordea, lortu nahi dugun helburua argi izateko aukera eman behar digu.

2019an Irizarren 130. urteurrena ospatu genuen, hamar urte bete genituen Busworld azokara stand propioarekin lehen aldiz joan ginenetik, Irizar Mexikoren 20. urteurrena ospatu genuen, Datiken 10. urteurrena eta hamar urte autokar integralen fabrikatzaile bihurtu ginenetik.

Gaur egun, taldean 13 ekoizpen-planta, 8 marka propio, I+G zentro bat eta banaketako eta salmenta ondoko 8 enpresa ditugu. Gure jarduera 6 sektoretan garatzen dugu, hala nola bidaiarien garraioan, elektromugikortasunean, energian, motor elektrikoetan, konektibitatean eta elektronikan, eta salmentarako eta salmenta ondoko sareak ditugu mundu osoan.

Gure presentzia globalki handitzen jarraitzen dugu. Irizar Italia erosi izana, Irizar Benelux irekitzea, Irizar AE-Bren sendotzea eta Suedian, Alemanian, Ekuador, Argentina, Egipto eta Kamerun moduko herrialdeetan izenpetu diren banaketa akordioak dira hedapen horren adierazgarriak.

Era berean, gure produktu integralak eta txasis marka nagusiekin elkarlanean garatutakoak hedatzen jarraitzen dugu. Eta jakina, taldeak eskaintzen dizkigun sinergiak aprobetxatzen jarraitzen dugu, eta Irizar Emobility, sortu dugun gure azken enpresa berria sendotzen.

Hedapen horri esker, 2019. urtean fakturazioa % 20 inguru hazi da. Beraz, 130 urteko historiako urterik onena izan da, bezeroengan oinarritutako gure estrategiaren aldeko apustu irmoaren isla den errekorra gaindituz.

Taldearen arrakasta, zalantzarik gabe, marka, teknologia eta iraunkortasunean oinarritutako strategiaren ondorioa da. Estrategia horrek sendotasun finantzario handia ematen digu, eta mugikortasunaren eragile global bihurtzen gaitu, bai hirikoa, bai distantzia ertain eta luzekoa.



Ahalik eta lasterren leheneratzeko, proiektu teknologiko berrietan inbertitzen jarraituko dugu, eta iraunkortasuna ezinbesteko balio gisa finkatuko dugu, oraingo eta etorkizuneko mugikortasunaren barruan. Horregatik, berrikuntza-proiektuen alde egiten jarraitzen dugu, emisiorik gabeko etorkizuna bermatuko duten teknologia berriak garatu ahal izateko.

Beraz, aurtengoak esperientzia pertsonal eta profesional hain zailak ekarri badizkigu ere, ez dezagun gal Irizar Taldeak iaz itxi zuen urte apartaren ikuspegia. Ikuspegi hori gidari izan behar dugu susperraldia hasi bezain laster indar handiagoz itzultzeko.

Rafael Sterling, CEO Grupo Irizar

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Rafael', written over a white background.

2019, errekor urtea

Oso pozik gaude Irizar Taldeak hazkundearen bidean jarraitzen duela iragartzeaz. 766 milioi euroko fakturazio finkatuarekin, aurreko urtean baino %20 gehiago, 2019a Taldearen historiako urte errekorra izango da.

Unitateei dagokionez, guztira 3461 autobus eta autokar dira, eta horietatik 1351 Irizar Ormaiztegin eta 94 Irizar e-mobilityn fabrikatu dira. 558 Espainiako merkatuari dagozkio, %47 lineaz kanpoko zerbitzura eta ibilbide labur eta luzeetara joan dira eta %23 hiri artekora eta aldirikoetara. Gure merkatu kuota %40 ingurukoa da.


2019a Europako esportazio merkatuetan ere errekor urtea izan da, 793 unitate izan baitira. Nabarmentzekoa da Frantziak lidergoa lortu duela, autobusen eta autokarren matrikulazio-kopurua lau aldiz biderkatu baitu. Hazkunde ikusgarri hori matrikulatutako 202 unitatetan islatzen da; horietatik 53 zero emisioko autobus elektrikoak dira, eta 5, berriz, autokar hibridoak. Urte ona izan da, orobat, Portugal, Israel, Italia, Polonia eta Ekialdeko Europan.




Ibilgailuaren tipologiari dagokionez, ibilgailu integralen kopuruan hazten jarraitzen dugu, Ormaiztegin fabrikatzen ditugun sei ibilgailutik bi integralak baitira.

Hazten jarraitzen dugu, eta pozik gaude lortutako emaitzekin, bai oro har, bai gure negozio nagusian, hau da, autobusen eta autokarren fabrikazioan.

Fakturazio finkatua (milioi eurotan)



Pertsonak





Irizar México, 20 urte

2019ko salmentek, ia 1.000 unitate, berretsi egin dute Irizarrek 8 urtez jarraian autobusen eta autokarren fabrikazioaren sektorean izan duen posizionamendu eta lidergo indartsua. %60tik gorako kuotarekin, Irizar Mexikok bere 20. urteurrena ospatu zuen, eta berrikuntza garrantzitsuak aurkeztu zituen merkatuan, beste behin ere Irizarrek Mexikon duen konpromisoa eta sendotasuna erakusteko.

Irizar i6S aurkeztu zuen, baita Euro5 motor berria eta segurtasun aktiboko sistemak dituen autokar integralen belaunaldi berri bat ere. Gainera, lehen Irizar i4 hibridoa entregatu da, aldirietarako eta hiri inguruko ibilbide laburretarako autobus bat. Scania txasisarekin Irizar i5aren lehen unitatea ere merkaturatu zuen, gas natural konprimituko e6 motor batekin eta 400 km-ko autonomiarekin.

Karrozeriako enpresa bat izatetik autokar osoen fabrikatzaile izatera igaro da, 13.000 unitate baino gehiagoko bolumen osoarekin.

Arrakasta, funtsean, produktuak eta zerbitzuak herrialdeko operadoreen beharretara egokitzeko eta pertsonalizatzeko apustuari zor zaio, hori funtsezkoa baita merkatuan barneratzeko. Irizar markak Mexikon duen indarra bezeroekin duen hurbiltasunaren eta bere nortasunaren isla besterik ez da, hala nola kalitatea, lehiakortasuna, produktuen errentagarritasuna eta teknologiarekiko eta berrikuntzarekiko, iraunkortasunarekiko eta talentua erakartzearekiko konpromisoa.





Irizar Brasil, urte bikaina

Brasilen 2019a historiako urte onena izan da, errekor urtea.

Aurreko urteko (2018) kopuruak gainditu dira eta haiek ere errekorra izan zirela aintzat hartuta benetan pozik gaude. Gogorazi behar da Irizar Brasilek ekoizten dituen ibilgailuak Latinoamerikako merkatuetara, Australiara eta Hegoafrikara esportatzen dituela.

Irizar Brasilek egiten dituen autokar modeloek estaltzen dituzten aplikazio guztien artean, meatzaritza segmentua bereziki aipagarria da, munduko beste leku batzuetan errepikatzen ez den eskaera bat betetzen duelako. Meatzaritza segmentuaren baldintza txarrei egokitzeko gaitasunari eta Irizar markak eskaintzen dituen kalitate maila bereko eta teknologia seguru eta fidagarriko autobusak emateko aukerari esker, Irizar Brasil finkatu egin da meategietan zerbitzuak ematen dituzten pertsona eta langile azpikontratatuaren garraio-segmentu horretan.



Txile

Ilido horretan, merkatu aitzindaria Txile da. Hango lurraldean erauzketako meategien kopuru handia dela eta, gaur egun Txilen entregatzen diren unitateen %80 meatzaritzaren sektorerako dira. Beraz, herrialde hori bihurtu Irizar Brasilen merkatu nagusia.

Peru

Peruko merkatuaren hazkunde handia da aurtengo urteko konturik nabarmenena, 140 unitateak gainditu baitira.

Txileko esperientzian oinarrituta, Irizarren autobusak Peruko herrialde arteko, turismoko eta meatzaritzako bezero garantzitsuenetan daude.

2019an Argentina eta Ekuadorreko merkatuetan sartu gara banatzaileen bitartez.

Irizarren hazkundera eta sendotasuna Australian

Irizar Taldea Australian sartu zenetik sei urte igaro direnean Irizar Asia Pacific finkatzen ari da, eta, 2019an bikoiztu egin ditu merkatu kuotaren digituak, partaidetzaren errekor berri bat lortzeraino, %22rekin.

2019 eta 2018 izan dira, zalantzarik gabe Irizarren urterik onenak Australian. Turismoko eta probintzia arteko erreferentziako enpresa gisa finkatuta dago, eta eskolako autobusen merkatuko hazkunde handiak eta meatzaritza konpainien kontratuak funtsezkoak izan dira hazkunde hori lortzeko.

Salmenta osteko azken inbertsioarekin eta bezeroarekiko harremanarekin, Irizar marka Australian merkatuko zerbitzu-markarik onentzat jotzen da.

Hegoafrika

2019a errekor urtea izan da Hegoafrikan saldutako unitateetan ere, eta Afrikan presentzia areagotu egin da, Mendebaldeko Afrikan eta Hegoaldeko Afrikan saldutako lehen unitateekin.

Irizar marka erreferentzia bihurtu da Afrikako herrialdeetan, produktuak eta zerbitzuak garatzeko egindako inbertsioagatik eta baldintza geografikoetara, bezeroetara eta erabiltzaileetara egokitzeagatik, zalantzarik gabe. Horren froga ona da aurreko motorra duten autokarrak garatzea, kalitatea, diseinua, erosotasuna, segurtasuna eta kostu operatiboa murriztu gabe. Gaur egun Irizar Afrikako 20 herrialde baino gehiagotan dago presente, eta lurralde eta eskualde gehiagotan hedatzen jarraitzen du.



Maroko

Marokon, 2019an garraioaren egoera konplexua izan da, garraio sektoreari eta, ondorioz, gure bezero tradizionalei eragin dieten hainbat gairengatik. Horrek eragin du urtea ez izatea bereziki ona. Hala ere, Irizar luxuzko autokarren merkatuan liderra da oraindik ere, eta Irizar Marokok esportaziora bideratzen dituen autokarrak ekoizteko zentro gisa finkatu da.



Irizar e-mobility, urtebeteren ondoren

2018an Irizar e-mobility instalazioak martxan jarri eta urtebetera, aurreratzen eta berritzen jarraitzen dugu, hirietan mugikortasuna eraldatzen laguntzeko asmo irmoarekin.

2019an, baterien soluzio desberdinen garapenari eta fabrikazioari bultzada indartsua emateaz gain, eta energia fotovoltaikoan inbertitzeaz gain, erabiltzeko prest elektromugikortasun soluzioak ezarri ditugu Baiona, Aix-en-Provence eta Amiens hirietan.

Ibilgailu elektrikoaren gama 12 metroko Irizar ietram autobusaren modeloekin eta 12 m-ko Irizar ie busen bigarren belaunaldiarekin zabaltzen dugu; Irizar ie truck kamioiaren lehen prototipoak aurkeztu ditugu eta dagoeneko hainbat hiritan dabilta.

Gaur egun bertsio berriak garatzen ari dira bai zero isurpeneko motor elektrikoari dagokionez bai aplikazio desberdinei dagokionez, hondakinen bilketatik harago.

Langile taldea 150 langile izatetik 200 izatera igaro da. Datu horrek berretsi egiten du enpresak etorkizuneko erronkei pauso irmoz heltzen diela, eta egiaztatzen du tokiko enpleguaren aldeko apustua eta lurraldean aberastasuna sortzeko ahalegina egiten duela.



Hazkundera Taldeko gainerako jardueretan ere

Jema

Jemak fakturazio hazkunde handia izaten jarraitzen du bere negozio unitate guztietan, bereziki bere sistema aurreratuen arlorako elikatze iturri seguruen unitatean. Lagungarria izan da bere hazkundera, halaber, Irizar Taldeko autokar eta autobus elektrikoentzako integrazio elektronikoko osagaien eta softwarearen hornidura.

Hispacold

Hispacold, hazten trenbide sektoreari esker 2019an sabaietarako ekipo berriak merkaturatu dira autobus sektore berrietan sartzeko, Breeze ize-neko gaman, autobus elektrikoen sektorean eta funtzionalitate berrietarako ekipoak.

Masats


Masatsek hazkundera sendotu du eta historiako fakturazio errekorra lortu du 2019an. Hainbat herrialdeetako autobus sektoreko bezeroek duten konfiantza eta trenaren sektorean pixkana finkatzen joatea dira arrakastaren arrazoiak nagusiak. Halaber, urte honetan garapen berriak merkaturatu dira, hala nola swinsynco atea eta tren geltokietako nasa-ateak baliozkotzea.

Datik

Datik ere hazten. Gaur egun 4.000 ibilgailu baino gehiago monitorizatzen ditu Espainia, Frantzia, Ingalaterra, Estatu Batuak eta Mexikon, besteak beste. Hain zuzen ere, Mexikon ordezkari bat ireki du bezeroengandik hurbilago egoteko.

Alconza

Alconzan nabarmentzekoa da bere instalazioetan egiten ari den inbertsioa, pribilegiozko posizioan jartzeko itsas trakzioaren munduak sektore guztietan teknologia jasangarrien alde eskatzen dituen aldaketei ekiteko. Elektromugikortasunerako iman iraunkorren sektorean erabakitasunez sartu izanak berekin ekarri du Alconza teknologia horretan aditua eta erreferentzia bat izatea ontzigitzaren sektorerako produktuotan.



Ospakizun eta mugarri garrantzitsuen urtea



Irizarrek 130 urte

2019an gure 130 urteko historia ospatu dugu; finantzetan oso sendo eta posizio indartsuan gaude, eta horri esker, aurrera egiten eta soluzio nahiz zerbitzu berriak garatzen jarrai dezakegu, ekonomikoki, sozialki eta ingurumenaren aldetik etorkizun jasangarriagoa bermatzen segitzeko.

1889an sortutako famili enpresa haren errealitateak nasaiki gainditzen ditu fundatzaileen ametsak. Gaur egun, 3.000 pertsonak baino gehiagok osatutako enpresa talde bat da Irizar. 766 milioi euro erantsi baino gehiago fakturatzen du, 5 kontinenteetan dauka presentzia komertziala, 13 produkzio planta ditu, I+Gko zentro bat, banaketa eta saldu ondoko 8 enpresa propio, salmenta eta saldu ondoko sareak mundu osoan, 6tan jarduten du eta 8 marka propio ditu.

Enpresa globala izaki, autokar eta autobus elektrikoak fabrikatzen jarraitzeaz gainera, tren sektorerako eta elektronika, energia, elektromugikortasun eta konektibitate sektorerako sistemen hornikuntza egiten dugu.

Urteak mugarri garrantzitsuak izan ditu, hala nola Irizar i6 modeloko 5.000. unitatea eta Irizar i6S ereduiko 2.000. unitatea entregatzea Europan eta Jose Manuel Orcasitasen ordezkoa, Irizar Taldeko CEO gisa. Irailaren 1etik aurrera Taldeko Zuzendari Nagusia Rafael Sterling da.

10 urte autokarren Irizar markak

Hamar urte igaro dira 2009ko Busworldeko azokan teknologia integrala aurkeztu zenetik, eta 5 urte lehen autobus elektrikoak entregatu genituenetik. Gaur egun Irizar markako autokar eta autobusak Espainia, UK, Frantzia, Italia, Polonia, Benelux, Israel, AEB eta Mexikoko lurretan dabilta, non gure presentzia komertziala inportantea baita. Garrantzi handiko beste merkatu batzuk, non gure ahaleginak bideratzen ari garen, Suedia eta Israel dira.

Bruselan urrian egin zen Busworld nazioarteko azoka izan da autobus eta autokar integral, hibrido eta elektrikoaren sorta osoa aurkezteko erakusleihoa, baita etorkizunerako funtsezkoak diren berrikuntza teknologiko ugari ere. Autokar eraginkoragoen, seguruagoen eta jasangarriagoen azken belaunaldia. Horien artean ze- goen Irizar i4 berritua, metropoli bokazioa, aldirikoa, eskola-garraiokoa edo enpresetakoa duen ibilgailua. Bes- te ezaugarri batzuen artean, berrikuntzak ditu barneko eta kanpoko diseinuetan, pisuetan eta aerodinamikan, eta horrek erregai asko aurrezteko ahalbidetzen dio.



Datitek 10 urte


Datitek ere 10 urteko historia ospatu du. Gaur egun 4.000 ibilgailu baino gehiago monitorizatzen ditu Espainia, Frantzia, Ingalaterra, Estatu Batuak eta Mexikon, besteak beste. Hain zuzen ere, Mexikon ordezkarriz bat ireki du bezeroengandik hurbilago egoteko.

Datiken plan estrategikoaren baitan, datozen bi urteetan kopuru hori bikoiztea dago aurreikusita.

Irizar Mexikoren 20. urteurrena

Irizar Mexicok handitasunez ospatu zuen 20. urteurrena. Mugarri hori baliatu zuen merkatuari berrikuntza garrantzitsuak eta autokar integralen belaunaldi berriak aurkezteko:

- Euro5 motorrak dituzten autokarrak, MY2017 arrakastatsuan oinarrituak, eta segurtasun aktiboko sistemak dituztenak (AEBS, ACC, DFD, LDW), bai eta Europan probatu eta baliozkotutako erregai-kontsumoaren eraginkortasunari dagokionez hobekuntzak dituztenak ere.
- Irizar i6S autokarra, merkatu mexikarraren behar guztiak asetzen dituen produktua.
- Lehenengo Irizar i4 hibridoa, aldirietarako eta hiri inguruko ibilbide laburretarako autobus bat, hiriko eta hiriarteko mugikortasun jasangarri eta eko-eraginkorrerako irtenbidea
- Scania txasisarekin sortutako Irizar i5aren lehen unitatea, gas natural konprimituko E6 motor batekin eta 400 km-ko autonomiarekin.



Aitzindariak teknologian

Diseinu bereizgarria duten produktuak sortzeaz gain, gaur egun, gero eta seguruagoak, eraginkorragoak eta ekologikoagoak izango diren teknologiak garatzean zentratzen da gure arreta (diesela, HVO, teknologia elektrikoak, hibridoak, bateriak).

Elektromugikortasuna eta mugikortasun soluzio adimendunak

Partekatzen dugun etorkizuneko mugikortasun integralaren ikuspegian, zero isurpeneko teknologia eta informazio adimenduna uztartzen dira. Teknologietan inbertitzen ari gara; horien artean, baterien garapen eta fabrikazioan, beharizan bakoitzari soluziorik onena emateko.

Gainera, jarraitzen dugun bideak gure autokarren konektibitate adimenduna, gidatze autonomoa eta mugikortasun kontzeptu berriak ditu helburu. Izan ere, gizartearekiko eta ingurumenarekiko erantzukizunez aritzea betebeharrak bat da guretzat.

Segurtasuna da lehentasuna

Errepidean segurtasun arazoak saihestea eskakizuna da gure ibilgailuentzat. Hala, segurtasun aktibo zein pasiboa ezaugarri estrategikoak dira gure produktu eta zerbitzuen garapen berrietan.

2019an lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuen Irizarrek Mobileye erreferentziazko enpresarekin (Intel Taldea), biek elkarrekin Irizar Taldeko autobusen eta autokarren automatizazio maila desberdinak eta ibilgailuon segurtasuna, efizientzia eta konektibitatea (5G) lantzerantz bideratutako funtzionalitate aurreratuak garatzeko.

Funtzionalitate horietako bat da istripuei aurre hartzeko sistema; potentzialki arriskutsuak diren egoerak identifikatzen ditu eta seinale bisual eta akustikoak ematen ditu gidariari laguntzeko talka bat saihesten edo arintzen. "Hirugarren begi gisa jarduten du, errepidea etengabe zaintzen du ibilgailuaren aurretik".

Sistema adimendun honek edozein ibilgailu edo motozikletarekin parez pareko talka izateko arriskuaz ohartarazten du gertatu baino 2,7 segundo lehenago arte, bai errepidean bai hirian; aurreko ibilgailuarekin segurtasun distantzia egokia mantentzen laguntzen du eta alerta akustiko eta bisualak ematen ditu segurtasun distantzia txikiegia denean. Alerta akustiko eta bisualak ematen ditu txirrindulari edo oinezko batekin talka gertatu baino 2 segundo lehenago arte edo nahi gabe erreitiko desbideratzea gertatzen denean. Zirkulazio seinaleak eta abiadura mugen seinaleak ezagutzen ditu eta automatikoki argi luzeen ordez motzak jartzeko gai da bideko gainerako erabiltzaileei trabarik ez giteko.



Konektibitatea

Taldean gidariari laguntzeko sistema adimendunak ere eskaintzen ditugu, eta aukerako ekipamendu gama bat ere bai gidariari nahiz bidaiariari mugikortasun modu optimoa eskaintzeko.

Ikusmen artifizialean eta deep-learningean esperientzia handia izateak aukera ematen du flotak kudeatzeko sistemak, mantentze prebentibo eta prediktiboa eta gidatze autonomorako sistemak eskaintzeko.

Interoperabilitatea

Potentzia, espazio eta operazio premia eta murrizketak zein diren, elektrifikazioari buruzko azterlanak eta karga adimenduneko sistemen dimentsionamenduari buruzkoak egiten ditu.

Gaur egun, Taldean ECI kargagailu elkarreragileen gama berri bat eskaintzen dugu, kotxetegieta gaueko kargak egiteko, eta aukerako kargako zenbait gune jarri ditugu martxan, autobusak bere ibilbidea utzi barik soilik lau minutuan kargatu ahal izateko.

Europako BRT sistema elkarreragile handienaren adibide bat Amiensen aurki dezakegu. Amienseko proiektuaren ondoren, Aix-en-Provence eta Baionako (Frantzia), eta Gasteiz eta Schaffhausengo (Suiza) proiektuak datoz. Guztira, 250 karga sistema baino gehiago, Europan garatutako proiektuetan.

Soluzio horiek guztiak elkarreragileak dira, honako araudi hauen arabera: ISO 15118, DIN70121, OCPP 1.6 CE mark, EMC. 61000-6-2, 61000-6-4, IEC 61851, IEC 61000.



Iraunkortasunari dagokionez

Gauza jakina da garraiobideen CO2 igorpenek eragina dutela beroketa globalean. Horregatik, egunez egun, gure ahalegin guztiak bideratzen jarraitzen dugu hainbat teknologia sortzeko, mundu osoko bezeroei etorkizuneko mugikortasun premiak asetzeko soluzio aitzindariak eman ahal izateko. Gure ibilgailuen inpaktua murriztea eta berotegi efektuko isurketak eta soinu emisioak deuseztatzea da gure lehentasuna.

Isurketak murriztea

Europar Batzordeak konputagailu bidezko simulazio programa bat dauka (VECTO), helburutzat daukana kamioi eta autokar fabrikatzaileak tresna estandar batez hornitzea, erregai kontsumoa eta CO2 isurketak neur ditzaten, eta, horren ondorioz, horiek nabarmen murrizteko helburuak ezar ditzaten.

VECTOk gaur egun egiten dituen deklarazioak kamioien sektoreari zuzendutakoak izan arren, Irizar dagoneko ari da inbertsio nabarmenak egiten ibilgailu hibridoan eta diesel ibilgailuen belaunaldi berri batean, CO2 isurketak (erregai kontsumoa) murrizteko asmoz. Horretarako, kamioien helburuak hartzen ditu erreferentziatzat, etorkizunean etorriko diren arauetara aurreratu.

Autobus baten Produktuaren Ingurumen Adierazpena lortzen lehen enpresa eta bakarra

4 urte baino gehiago daramagu bizi zikloa aztertzeke (BZA) metodologiak aplikatzen, eta produktu kategoriararen arauak (PCR) ezarri ditugu, gure autokarren ingurumen profila ebaluatzeke, bai errekuntzakoena, hala hibrido zein elektrikoena. Izan ere, gure helburua da guztion eskura jartzea ingurumenaren aldetik eraginkorrak eta abangoardiakoak diren produktuak eta teknologiak, produktuen bizi ziklo osora aplikatuak. Lan horren fruitu, Produktuaren Lehenengo Ingurumen Deklarazioa lortu dugu aurten (The International EDP System). Hala, ingurumen arloan ziurtagiri hori lortzen duen sektoreko lehenengo enpresa gara munduan.

Bizi zikloaren analisirako proiektu hau Irizar i4 modeloarekin egin da -integrala, 13 metro luze, 55 leku, diesel motorra DAF MX11 E6-, eta Irizar Taldeko gainerako produktu gamara zabalduko da.

CERTIFICATE EPD REGISTRATION

This document is to confirm that

IRIZAR, S.COOP.

has published an Environmental Product Declaration for

IRIZAR I4 INTEGRAL COACH

with registration number S-P-01571
in the International EPD® System.

The EPD has been developed in accordance with ISO 14025, the General Programme Instructions for the International EPD® System and the reference PCR 2016:04. Verification was performed by Tecnalia R&I Certificación, S.L.

This document is valid until 2024-05-17, or until the EPD is de-registered and no longer published at www.environdec.com.



Adam Lewrén
Secretariat of the International EPD® System
Gothenburg, Sweden, 2019-06-03

